

Joakin Altzibarren *Grand tourra*

OIER SALEGI ODRIOZOLA

Lan honek Joakin Altzibar-Jauregi Atxaran azkoitiarraren *Grand tourra* antzerki obra (1772) aztertzea du xede, jadanik hurbilketa interesgarriak izan badu ere Borja Aginagalde, Iñaki Aldekoa eta Jose Luis Ugarte adituen aldetik, nahiko ezezagun segitzen baitu oraindik euskal letren alorrean. Gure azterketan, hortaz, lehenbizi Altzibarren obrako hizkerari erreparatuko diogu, hala euskarari nola darabilen grafia sistemari. Ondoren, herrikidea eta garaikidea duen Xabier Munibek idatzitako obretako hizkerekin alderatuko dugu, *Grand tourra*-ren formaltasunaz jabetzen lagunduko digulakoan. Behin hori eginda, antzerkiaren azterketa literarioari ekingo diogu, lana zertaz den azaldu eta ezaugarri nagusienak aipatuz. Horrez gain, iturririk izan zuen aztertzen saiatuko gara, garai hartan aurki daitezkeen gainontzeko lanekin erkatuz eta garaiko giroaren berri emanez motz motzean. Honekin guztiarekin, Joakin Altzibarrek idatzitako *Grand tourra* obraren benetako balio literarioa zenbaterainokoa den argitzea izango da gure lanaren helburu nagusia.

1.- SARRERA

Borja Aginagaldek adierazten duenez (2007), Altzibar eta bere familia oso ospetsuak izan ziren garaiko Gipuzkoan, izan ere, ahalmen ekonomiko ikaragarriko familia ziren. Orotara, 18 anai-arreba izan baziren ere, oinordekotza jaso zuen semea ez bide zen ezkondu eta familiaren herentzia euren odolekoa ez zen gizaseme baten eskutan gelditu zen azkenik. Dena den, ez zuen Joakin Altzibarrek diru aldetik estutasunik zan, baina badirudi bizitza guztian ez zuela lanik egin eta “alferzorri bat” (Aginagalderenak dira hitzak) izan zela.

Aipagai den testu honen “inspirazio-iturri” izan zenez, Joakin Altzibarrek bere anaia Bizenterekin 1772an egin zuen bidaia aipatu beharko. Bi anaia hauek, sei hilabetetan zehar, Europako lau herrialdetan barrena ibili ziren: Italia (Erroma, Florentzia, Bologna, Napoli eta Venezia), Austria-Alemania (Viena, Baden, Munich), Frantzia (Paris) eta Britainia Handia. Bidaia bera gutxi ez, eta Aita Santuarekin hizketaldi bat izateko parada ere izan omen zuten Altzibar anaiek. Datu hauek ezinbestean familia honen benetako boterea zenbaterainokoa zen pentsatzera garamatzate, uste izatekoa baita 26 eta 30 urteko bi gaztek honelako bidaia bat egitea ez zela batere arrunta XVIII. mendean.

Oro har, *Grand tourra* antzerki lan xumea genuke, antzerki obra serio eta txukun batetik nahiko urrun kokatzen dena, baina, euskal le-tretan alor horretan zegoen gabezia kontuan hartuta, meritu faltarik ez duena.

Lantxo honen sarreran aipatzen denez, Eguberrian aurkeztu zen antzezan hau Altzibartarren sukaldea eszenatoki zela. Horretaz gain, luzerari dagokionez, testu labur bat dela esan daiteke, guztira 19 orrialdetan idatziriko testua baita. Ezaugarri hauek eta beste askok lan honen formaltasunaz zer pentsatua ematen dute. Hori dela eta, gure lanean antzerkitxo honen azterketa bat egiten saiatuko gara, bai bertako hizkerari dagokiona eta baita azterketa literario bat ere. Azterketa honen bidez, Altzibarren obrak izan zezakeen helburua zein izan zitekeen argitu eta lan honek zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen zehazten ahaleginduko gara. Horretarako, nola ez, garaiko beste lan batzuekin erkatuko dugu; alde batetik, iturririk izan zuen jakite aldera, baina beste aldetik, garaiko beste zenbait lanek zituzten helburuak eta intentzioak baloratu, eta *Grand tourra*-ri eman ahal zaion balorea zehazteko asmoarekin. Intuizioa baitut, eta hori frogatzen ahaleginduko gara, lan hau lagunarteko denbora-pasa huts bat izan zela, alderdi formalei ia erreparatu gabe, gertukoenei une atsegin bat igaroarazteko intentzioarekin idatzia.

Guztiarekin, ezin ahaztu euskaraz idatzitako lehenengoetariko antzezlana genukeela honako hau orain arte jakin ahal izan dugunez. Eta ondorioz, izan zituen intentzio eta ezaugarri formalak alde batera utzita, bere balore historikoa ezin ukatuzkoa dela. Hain zuzen ere, Euskal Literaturan genero dramatikoak (beste genero gehienak bezala) ordura arte zuen gabeziaz ohartuta, ez zaigu iruditzen euskaraz idatzitako lan bat, ezta txikiena eta eskasena ere, inondik ere gutxietsi eta

baztertu behar denik. Alderantziz, lan hau idatzi aurretik euskarazko antzerkigintzarik ia egon ez izanak beronen balorea eta garrantzia azpimarratzen dituela esango genuke.

2.- HIZKERAZ BI HITZ

2.1. Fonologia

Bokalen esparruan bi bokalen arteko batuketan (hiatoen) emaitza desberdinak dira, agian, azpimarragarrienak. <E> eta <a> bokalak batzean, esaterako, hiru aldaera ezberdin aurkitu daitezke: orokorrena <ia> (*andria, abadia*), gutxiagotan <ea> (*gañean, urtean*), eta kasu bakanen batean <ie> (*goizien*) bokal asimilazioarekin (beherago aipatuko ditugu bokal asimilazioak); hain zuzen ere azken forma hau da gaur egun Azkoitian erabiltzen dena. <E> + <e> = <ie> bat ere aurki daiteke (*semien*). <I> eta <a> batzeak ere bi aldaera eman ditu: <ia> (*betorria, eguia*) eta <ija> (*beguijac, eguija*). Adibideetan ikus daitekeenez hitz bera bi modu ezberdinetan ere ager daiteke testuan. Dena den, aipatu behar aurreneko kasua orokorragoa dela. Gauza bera esan daiteke <i> + <e>, <i> + <o> edota <i> + <oa> kasuez ere; hau da, bokal artean <j> bat sartzea gerta daitekeela baina gabe ere sarri agertzen dela: *andijena* baina *andiena*, *amorijo* baina *comercio* edota *yndijuac* baina *relaciua*. Ezin aipatu gabe utzi azken kasu honetan <o> + <a> = <ua> ageri bada ere, <oa> forma ere nahiko orokorra dela (*relazioa, publicoac*). Ildo bertsutik doala esango genuke aditzetako <o> + <a> = <ua> batuketa ere, gutxitan gertatu arren adibideak badira (*daguan, enaguala*). Honetaz gain, aipa daiteke <u> eta <a> edo <e> batzean sartu ohi dela gehienetan tartean (*erruba, instruituva, subec*).

Atal honetan, bokal asimilazioak aipa daitezke, gaur egun ere Azkoitian erabatekoak direnak; hau da, <i> edo <u> bokalaren ondoren (tartean kontsonante bat egon edo ez) <a><e> bihur daiteke testuan (*or due, ematendire*).

Bestalde, kontsonanteen alorrean txistukarien kasua da deigarriena. Ez ditu batere ondo bereizten. Gehienetan, <z><s> bihurtzen da (/s/?/œ/): kodan (silaba bukaeran) ez ezik (*estizut, gustiaustes*), bestelako testuinguruetan ere bai (*subec*). <S><z> bihurtzea ere gerta daiteke ordea

(*ezan*). Hemen ere behin baino gehiagotan gertatzen da hitz bera bi modu ezberdinetan adieraztea (*ezan* baina *esan*).

2.2. Izen morfologia

Izen morfologiaren arloan, geografikoki espero daitezkeen ezaugarriak ageri dira. Esaterako, soziatiboa –kin bidez adieraztea (*aubequin*), edota ergatibo plurala –ak bidez egitea (*gustijak*). Ablatiboan, –tik bidez adieraziak aurkitzen ditugu ia kasu denak (*Boloniatic, Larrascandatic*), baina, –ti bat ere aurki daiteke (*denborati*). Baliteke aitzinago bi formen arteko borroka egon izana eta –ti bakar hori lehenagoko formaren azken aztarnetako bat izatea.

2.3. Aditz morfologia

Aditz morfologiarekin hasteko aditz izena aipatu nahiko genuke. Izan ere, *erori* eta *etorri* moduko aditzetan (-i amaieradunak) –ten bidez egin ohi du aditz izena (*erorten, etorten*), hau, arkaismotzat jo daiteke, ez baita egungo Azkoitiko forma.

Behin hau esanda, aditz laguntzailea aztertuko dugu. Hasteko **edun*-en kasua aipatu beharko da, izan ere, forma ezberdinez ageri da adierazita. Nor-Nork lehenengo pertsona singularrean esaterako *dut, dot* eta *det* formak ageri dira. *Dut* behin bakarrik ageri bada ere, *dot* eta *det* antzeko maiztasunarekin ageri dira. Baliteke, hemen Azkoitia eta mendebaldearen arteko lotura nabarmentzea eta erdialdeko eta mendebaldeko formen arteko borrokaren adierazgarri izatea forma hauek. Dena den, nahiko bitxia iruditzen zaigu testu berean hiru formak agertzea. Nor-Nork-en beste kasu batzuk aipatze aldera, *dezu, desute* edo *dute* aipa daitezke; beti modu berean agertzen dira aditz laguntzaile hauek. Nor-Nori-Nork-en berriz, *dijue* (batuko *diote*) forma gerta daiteke, agian, deigarriena. Gaur egun ez baita Azkoitian horrela egiten (*dixobe* baizik; dena den, *dijue*-tik etor daiteke forma hau).

Izan laguntzaileari dagokionez, honako formak ageri dira: *zat, dan* edota *zan*. Gaur egun ere Azkoitian erabiltzen diren formak. Ezin gauza bera esan *dira* edo hiru bider ageri den *dire* formei buruz, egun, ez baitira horrela erabiltzen herri horretan (*diz* baizik).

Aditzekin bukatzeko, adizki trinkoei ere begiradatxo bat bota nahi genieke. *Joan*-en (*dijuen, dijuasen*), *jakin*-en (*bazinaqui, daquiran*), *ibili*-ren (*daviltzala*), *egon*-en (*espanego, naquan*), *eduki*-ren (*daucat, dauscala*), *iritzi*-

ren (*deizon, badeizot*), *esan-en (dijo, diozu)* edota, agian deigarriena, *eroan-en (daroa)* kasuetan aurki daitezke aditz trinkoak

2.4. Lexikoa

Lexikoaren atalean, Altzibarren ezaugarri nagusia gaztelaniatik hartutako maileguen erabilera masiboa da. Orotara ia 50 mailegu zenbatu ditugu, euskarazko ordain arruntak eduki arren Altzibarrek bere testurako hautatuak. *Aturdiuta, dificultade, jurisdicio, pregunta, vomitacen* edota *suceizen* dira, besteak beste, deigarrienetako batzuk.

2.5. Grafia

Joakin Altzibarrek bere lanean erabilitako hizkera aztertzen bukatzeko, erabili zuen grafia sistema aztertuko dugu. Hasteko /i/ hotsa aipatuko genuke, bokal hau adierazteko bi grafema baitarabiltza: <y> eta <i>. Esan beharra dago <y> oro har hitz hasieran erabiltzen duela eta <i> askoz maizago ageri dela. Beste askotan bezala, hots hau bi modu ezberdinetan adierazita aurki dezakegu Altzibarren lanean, baita hitz bera bi modu ezberdinetara idatzita ere: *Yzarrisco* eta *Izarrisco* edota *ycusi* eta *icusi*. Grafiaekin jarraituz, /b/ hotsean sartuko gara. Gehienetan -z adierazten du hots hau Altzibarrek, baina, <v>-z ere ager daiteke, bai maileguetan, baita arrazoi etimologiko jakinik gabe bestelako hitzetan ere. <H> letrara igarota, esan daiteke oso gutxitan ageri dela, eta ageri denean, ia beti maileguetan.

Kasu konplexuagoa dugu /g/-rena. <Gu>bidez adierazten da askotan <e> eta <i> bokalen aurretik. Ez da beti horrela gertatzen, ordea, <g> bidez ere adierazten baitu bi bokal hauen aurretik ere. Hemen ere hitz bera bi modutara adierazita aurki daiteke: *begui* eta *begijac* esaterako. Horretaz gain, igurzkari belarea ordezkatzeko ere erabiltzen du <g>, horretarako <j> (gehiagotan) nahiz <x> (bi kasutan soilik) ere erabili ditzakeen arren. Hitz bera bi era desberdinetan adieraztea gerta daiteke hemen ere: *gende* eta *jende* horren adibide.

/s/-ren kasuan, <c>, <z> eta <s> darabiltza ia-ia arau jakinik gabe. Dena den, azken honen erabilera arazo fonologiko bat izan daiteke; hots, lehen aipatutako txistukariak bereizte eza, /?/-ren alde gertatzen dena gehienetan. Azken hots hau adierazteko, berriz, <s> darabil gehienbat, baina txistukariak ez bereizteak <z>-ren erabilera ere badakar inoizka. Frikariez esandako kasik gauza bera esan dezakegu afrikatuez ere. Izan ere, <c>, <z> eta <s> erabiltzen ditu Altzibarrek /ts/ hotsa adierazteko

eta <s> bakarrik /t?/-rentzat. Esan beharra dago, ordea, <c> erabiltzekotan <e> eta <i> bokalen aurretik soilik darabilela frikari eta afrikatuak adierazteko.

Maileguen hitz hasierako /r/ hotsari dagokionez, aipa daiteke gehienetan bokal protetikoarekin egiten duela, hura gabe ere egin dezakeen arren. Hitz bera bi era ezberdinetan adierazten dituen kasuak badaude hemen ere: *arrazoe* eta *razoiac* edo *errelaciua* eta *relacio*. Grafia sistemaren azterketarekin bukatzeko, /k/ hotsa aipatuko dugu. Hemen, bereizketa garbia eta zurruna da: <c> erabiltzen du <a>, <o> eta <u> bokalen aurretik eta kodan, eta <qu> aldiz, <e> eta <i>-ren aurretik.

3.- JOAKIN ALTZIBARREN ETA XABIER MUNIBEREN HIZKEREN ARTEKO ALDERAKETA

3.1. Xabier Munibe

Joakin Altzibarren laneko hizkera garai eta leku bertsuko beste obraren batekin alderatzeari beharrezkoa deritzogu ea eredurik izan zuen edo bere kasa aritu zen jakiteko. Izan ere, garrantzitsua da jakitea Altzibarren obran, nola hizkeran hala grafian, alderdiaskotan ikusten den koherentzia falta garaiko idazlanen artean orokortua zegoen edo bere ardurarik ezaren ondorio den. Horretarako, Xabier Munibe “Peñafloridako Kondea” azkoitiarrak idatzitako lanak kontuan hartzea pentsatu dugu. Herri eta garai berekoa izaki, auzi hau argitzeko argigarri izan daitekeela iruditzen zaigu. Baina Muniberen obrei erreparatu (eta Altzibarrenarekin erkatu) aurretik ez dugu uste lekuz kanpo dagoenik bere ingurua eta berak sortutako *Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea* aipatzea.

Hasieran Munibek bere etxean elkartzen zituen “Azkoitiko Zalduntxoak” inguruetako noble eta jakintsuak izan ohi ziren, literatura, filosofia, historia edo bestelako zientziak gai hartuta tertuliak egin ohi zituztenak bertan. Haien bultzadarekin aipatutako elkartea sortu zen 1764an, hainbat helburu ezberdinekin. Hona estatutuen lehen artikuluan jasotzen den aipua: “Elkarte honen helburua Euskal Herriko Zientziakiko, Arte eta Letra Ederrekiko duen joera eta zaletasuna lantzea, ohiturak zuzendu eta fintzea eta euskaldunen arteko batasuna gehiago sustatzea da”¹. Oro har, zientziaren alorrean isuri zituzten izer-

[1] Informazio hau <http://bascongada.eus/eu/la-sociedad/historia> web orritik atera

di gehienak. Gainera, izerdi horiek ez dira alferrik izan, 1778an irekitako kimika laborategiak eta laborategi hartan Elhuyar anaiek 1783an metal berri bat (wolframioa) isolatzea lortu izanak frogatzen dutenez. Alabaina, Jesus Maria Lasagabaster-ek Muniberi buruz idatziriko artikuluan azaltzen duenez, letrek ere izan zuten euren garrantzia elkarte honetan:

(...) la modernización de la sociedad no se concibe como el mero desarrollo material, científico, y técnico; es también importante el cultivo de las ciencias del espíritu, que formaron parte de la actividad de los Amigos del País, desde los tiempos de la Junta Académica de Azpeitia; la música, la literatura o el teatro son también aspectos esenciales de las actividades desarrolladas por la Sociedad Bascongada y por el Seminario de Vergara y también aquí es el Conde de Peñaflores no sólo promotor y animador, sino también en ocasiones protagonista principal de muchas de estas actividades (1996: 244).

Beraz, letren alorrean ere aritu zen elkarte hau. Lasagabasterrean aipatzen denez, Munibek literaturari orokorrean, baina batik bat antzerkigintzari egin zizkion ekarpenak, bai teoriko moduan, baita autorea moduan ere.

3.2. Larramendirekin lotura

Dena dela, badirudi bai garrantzi aldetik eta baita presentzia aldetik ere euskara alboratua izan zela elkarte honen zereginetan. Une honetan uste dugu beharrezkoa dela Larramendiren figura aipatzea. Izan ere, jesuita euskaltzale hau Loiolako basilikan bizi izan zen 1734 eta 1766 bitartean, “Azkoitiko Zalduntxo” zirenen egoitzatik 3 kilometro ingurura. Gertutasun horrek eraginda beharbada, Andoingo jesuitak izan zuten eragina Munibe eta honen lagunengan. Honela dio Lasagabasterrek:

(...) y no sería exagerado decir que una figura como la de Larramendi es de alguna manera un precursor del espíritu que animó a los Caballeritos de Azkoitia; un año después de su muerte, ese espíritu cristaliza esplendorosamente en la creación por parte del Conde de Peñaflores de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (1996: 248)

dugu.

Honetaz gain, aipatzen ari nintzen euskararen alorrean ere izan dezake Larramendik nolabaiteko eragina intelektual hauen zereginetan. Euren arteko harremanaren froga zuzenik ez badago ere, nahiko nabarmena da Larramendi bizi bitartean eta Larramendi hil ondoren euskarak “Zalduntxoek” artean izan zuen presentzia ezberdina. Horrela, pentsa daiteke Loiolako jesuitak bultzatu zuela “Peñafloridako Kondea” euskaraz idaztera. Larramendik berak honela aipatzen ditu 1762an Munibek argitaratutako *Gabon Sariak* deitzen diren gabon kantak: “Peñafloridako Condeac eguin dituenac, eta berac musican paratu dituenac” (Salaberri 2002: 137orr). Jesuita garrantzitsu honen heriotzaz geroztik, ordea, “Azkoitiko Zalduntxoek” eta ondorengo “Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen” zeregin eta argitalpenak gaztelania hutsezkoak izango ziren. Hala ere, pentsa daiteke, euskara bultzatzen bakarrik ez, erabileran bertan ere eragin zuela Larramendik.

“Peñafloridako Kondeak” erabat euskaraz idatziriko testu bakarra *Gabon Sariak* dugu, beraz. “Sor Luisa de la Misericordia”-ren izenpean agertzen da obra hau; alabaina, gaur egun onartua dagoen teoria da lan hori Munibek idatzitakoa dela. Obra hau antzerki obratzat hartu izan den arren, egungo adituen iritziz gabon kanta soil batzuk dira. Dena dela, Munibek idatzitako obrarik arrakastatsuen den *El borracho burlado* obra ez bezala, *Gabon Sariak* euskara hutsean dago; beraz, bi lanak erabiliko ditugu Altzibarren euskararekin alderatzeko.

3.3. Muniberen eta Altzibarren hizkeren arteko alderaketa

Esan bezala, Muniberen testuetako euskara eta Altzibarrena alde-
ratzen saiatuko gara ondorengo lerroetan. Horretarako, *Grand tour*-eko hizkuntza aztertzeke erabilitako ordena eta modu bertsuak erabiliko ditugu hemen ere. Muniberen hizkeraren ezaugarriak, ordea, laburrago azalduko ditugu, atal hau ez baita bere hizkera aztertzeke, honen eta Altzibarren arteko ezberdintasunak eta berdintasunak azaleratzeko bai-
zik.

3.3.1. Fonologia

Bokaletan ezberdintasun nabarmenak aurki ditzakegu hiaitoetan. <E> bokalari <a> edo <e> gehitzean kasurik gehienetan, <i> bihurtzen dela ikusi dugu Altzibarren testuan; Munibek aldiz <e> mantendu egiten du. <I>-ren ondoren beste bokal bat datorrenean <j> eransten dio Altzibarrek batzuetan, Munibek sekula egiten ez duen bitartean. <O><u> bi-

hurtu daitekeela ere ikusi dugu Altzibarren hitzetan; sekula ez da hori gertatzen Muniberenetan. Bokalekin amaitzeko, <u> eta <a>-ren artean sartu dezakeela igarri diogu Altzibarri: sarritan hartzen duen jokabi-dea da hau; *Gabon Sariak*-en, berriz, hori gertatzen den kasu bakarra aurkitu dugu: *gastelaubarequiñ*.

Kontsonanteen esparruan txistukarien bereizketarik eza aipatu dugu Altzibarren hizkeraren azterketan; izan ere, nabarmena da uanean bururatuta bezala idatzi zituela <s>-ak eta <z>-ak, hitz berak batzuetan era batera eta besteetan bestera adieraziz. Beraz, testu horretako koherentzia faltaren adierazgarrietako bat da txistukarien kasua. Dena den, Xabier Munibek ere sarritan nahasten ditu txistukariak.

3.3.2. Izen morfologia

Izen morfologian, portaera antzekoa dute biek hala biek. Geografikoki euren ingurukoak diren ezaugarriak betetzen dituzte: soziatiboa -kin, ablatiboa -tik eta ergatibo plurala -ak bidez.

3.3.3. Aditz morfologia

Aditz morfologiaren alorrean ezberdintasun ugari aurki ditzakegu. Hasteko, aditz izenari dagokionez, *Grand tour*-ean bezala, -i amaieradun hitzetan -ten aditz izenaren adibideak ageri dira (*El borracho burlado-n ibiltzen*). Bestalde, aditz trinkoei begirada bat emanez, joan aditzaren *dijua* eta *dijuasen* formak aurkitu dizkiogu Altzibarri. Munibek, aldiz, *dijoa-z gain dia* eta *diazzen* ere erabiltzen ditu; hemen aipatu behar da Larramendik Azkoitian emandako sermoian azken bi forma hauek erabili zituela.

Aditz laguntzaileari erreparatuta, **edun*-en Nor-Nork lehenengo pertsona singularrean, maiztasun ezberdinarekin baina *dut*, *det* eta *dot* ageri dira Altzibarren testuan. Munibek, ordea, *El borracho burlado-n det* eta *dut* tartekatzen ditu eta *Gabon Sariak*-en *det* soilik darabil. Aipagarria da halaber, hirugarren pertsona plurala *dute* darabilteela bai Altzibarrek eta bai Munibek, Azkoitiko hizkeran esperoko ez genukeen forma. Dena den, *Gabon Sariak*-en ageri dira *debe*-ren adibideak ere; hain zuzen, forma hau erabili zuen Larramendik Azkoitiko sermoian eta gaur egungo bertako hizkeran ere *debe* da ohikoena. Bigarren pertsona pluralean, Altzibarren *desute* aurkituko diogu Muniberi ere (*dezute*), baina *Gabon Sariak*-en *dezue* ere azalduko zaigu. Nor-Nori-Nork-en, esan dugu Euskara Batuko *diote* forma *dijue* egiten duela Altzibarrek. Ezin gauza bera esan Munibez, *diote* forma erabiltzen baitu. Aditzarekin amaitzeko, *izan*

aditzean *zat* forma aipatu dugu datiboko lehenengo pertsonako singularrean. Forma bera darabil Munibek ere kasu batzuetan, baina *zait* forma ere ageri da.

3.3.4. Lexikoa

Lexikoaren esparruan, *Gabon Sariak* aipatu nahiko genuke. Batetik, *Grand tour*-ekin alderatuta, gaztelaniatik hartutako mailegu askoz gutxiago ditu. Ez da harrizkeoa hau, jakinda Altzibarren mailegu kopurua oso handia dela. Alabaina, aipagarriena da, Larramendik proposatutako *otsaldi*, *adiraqui*, *egoquiquilde*, *metaphora* edo *copla jostalluac* hitzak ageri direla Muniberen obra honetan. Honek, argi uzten du, Larramendik emandako baliabideak erabili zituela “Peñafloridako Kondeak”.

3.3.5. Grafia

Bataren eta bestearen hizkuntzen arteko alderaketa honekin amaitzeko, grafiari eman nahiko nioke begirada bat. Honetan ere, ikusi dugu Altzibarrek ez dituela arau jakin batzuk jarraitu, eta zenbait hots adierazteko modu bat baino gehiago erabili ditu lan berean. Bestelakoa dugu Muniberen kasua: irizpide jakin batzuk ezarriak ditu lan osoan, kasurik gehienetan nahiko ondo betetzen dituenak. *El borracho burlado*-ko grafia Xabier Mendigurenek ongi aztertu zuen *ASJU 1987* aldizkarian idatzitako “EL BORRACHO BURLADOko euskararen azterketa (1764)” artikuluan, eta lan hori baliatuko dugu konde azkoitiarraren ezaugarriak azaltzeko.

Hasteko, esan eta <v>-ren erabileran aurrenekoa dela nagusi Muniberengan, Altzibarren lanean bezala; baina, azken honetan bezala, <v> askotan arrazoi etimologikorik gabe erabiltzen dela. Gauza bera gertatzen da <i> eta <y>-rekin: aztergai diren bi autoreetan aurreneko grafemaren aldeko hautua dago gehienbat, <y>-ren erabilera ageri bada ere. Bi autoreen arteko berdintasuna dugu <h>-ren erabileran ere. Oro har, kasu bakan batzuk salbuespen, maileguetan ageri den grafema da <h>.

Orain arteko ezaugarrietan portaera berdintsua izan badute ere, ezin gauza bera esan <g>-ren erabileraz. Ikusi dugu Altzibarrek <e> eta <i>-ren aurretik batzuetan <gu> erabiltzen duela, baina <g> soila beste batzuetan; baita /x/ fonemaren ordeztze <j> eta <g> tartekatzen dituela irizpide finko bati jarraitu gabe. Munibek aldiz, <e> eta <i>-ren aurretik beti darabil <gu>; eta, <g> darabilenean, igurzari belarea ordezkatzeko da. Hots horretarako, <j> darabil gainontzeko bokalen aurretik.

Ezberdintasun nabarmenak daude txistukarien grafemetan ere, /s/ adierazteko Altzibarrek <z>, <c> nahiz <s> erabil ditzakeela ikusi dugu (azken hau txistukarien neutralizazioak eraginda ziurrenik). Munibek, aldiz, <e> eta <i> aurrean beti darabil <c>, gainontzeko bokalen aurrean <z> darabilen bitartean. /ʔ/-ren kasuan <s> erabiltzen du beti, bokal artean izan ezik; izan ere, bokal artean <ss>-ren aldeko joera dauka, batzuetan <s> erabiltzen badu ere. Lehenago ikusi dugun bezala, bestelakoa da Altzibarren kasua, hots honetarako <s> eta <z> erabiltzen baititu. Dena den, azken bi hots hauekin kontuz ibili beharra dago, pentsatzekoa baita arazoa fonologikoa dela grafikoa baino. Gauza bera esan daiteke /ts/ hotsaz. Ikusi dugu Altzibarrek <c>, <z> nahiz <s> erabil ditzakeela hots hau adierazteko eta baliteke txistukariak ez bereizteak <s> horren erabileran eragina izatea. Munibek, aldiz, <tc> darabil gehienetan <e> eta <i>-ren aurretik eta <tz><e>-ren aurretik batzuetan eta gainontzeko bokalen aurretik beti. Aipagarria da Larramendi hasi zela <t> sartzen afrikariak frikariengandik bereizteko, hortaz, hemen ere ikus daiteke andoaindarraren eragina kondearengan. Horretaz gain, aipa daiteke <n> eta <l> ondoren <t> hori galdu egiten duela. Txistukariekin amaitzeko, /tʔ/ hotsa aipatuko dugu. Ikusi dugu Altzibarrek <s> erabiltzen duela beti, baina oso bestelakoa da Muniberen kasua; honek, ez bide zuen ongi bereizten hots hau eta, ondorioz, <ts>, <tc> eta <tz> erabiltzen ditu.

Bestalde, grafiarekin amaitzeko, esan maileguetan /r/-rekiko jokatibidea antzekoa dela bi autoreetan, hots, aurretik bokal protetikoa jartzeko joera dutela gehienetan.

Orokorrean, Altzibarren hizkera herrikoiagoa eta nahasiagoa dela nabari da, ondorioen atalean azalduko dugu hau zabalago.

4.- BEGIRADA LITERARIOA

4.1. Garaiko literaturaren testuingurua

Aztergai den lan hau antzerki lan gisa hartu izan da antzetzeko sortutako obra bat izan zelako. Zehazki, komedia gisa sailkatu genezake, publikoaren barrea baitu helburu nagusi. Mugimendu literario jakin batean kokatzea lan nekeza litzateke, batik bak garai hartan antzerkiaren inguruan euskal mugimendu literariorik bazenik nahiko zalantzazkoa delako. Dena dela, ezin aipatu gabe utzi lan honen garai eta leku bertuan taularatutako bi antzerkiak: Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* eta

lehendik aipatutako Muniberen *El borracho burlado*. XVIII. mende hartan aurki ditzakegun bi obrak dira aipatutakoak. Alabaina, bai euren artean, eta baita Altxabarren lanarengandik ere, oso berezita daude.

Autoreari dagokionez ere, ez dirudi literatura idazle izan genuenik. Borja Aginagaldek *Egan 2007*-ko bere artikuluan aipatzen duenez, pieza honetaz gain baditu beste testuren batzuk idatzita: “batzuk eruditua, besteak irrigarriak eta mitologikoak, hainbat bertso eta karikatura tar-teko” (2007: 39). Dena den, ezin jakin literatur korronte baten jarraitzaile edota partaide izan zenik. Egari zor, ez zaio Larramendik orduko Euskal Literaturari eman nahi izan zion bultzadaren eraginik ikusten, ez gramatikan, ezta lexikoan ere. Ez da andoaindarraren ideien oihartzunik ere nabari, ez garaiko idazleen euskararen apologia kutsurik, ez erlijioarekin edo jokabide moral zuzenarekin lotutako ezer nabarmenik ere. Nola idazlea, hala obra: garaiko Euskal Literaturaren joeretatik berezita ageri zaizkigula dirudi beraz.

4.2. *Grand tourra*

Grand tourra izenez ezagutzen dugun antzerkitxo honek Joakin eta Bizente Altxibar anaiek Europako Gorte Nagusietan zehar egindako bidaia du oinarrian. Hain zuzen ere, euren igarotako herrialde eta hiriak aipatzen dira testuan. *Grand tourra* izenak ere oinarrian bidaia bera du. Hau da, izenaren jatorria XVII. mendearen erditik XIX. mendearen hasierara bitartean jauntxoek edo jende dirudunak Europan zehar egiten zituzten bidaietan datza. Badirudi joera hau Ingalaterran sortu zela eta gero kontinente zaharrean zehar hedatu zela. Bidaia hauen helburua hezkuntzari loturikoa zen: jende gazteak egin ohi zituen, arte klasikoa eta errenazimentuko ideiak ezagutzeko. Baina, horretaz gain, garaiko moda berriak eta sortzen ari ziren ideien berri izateko abagune ezin hobea zen.²

Joakin eta Bizentek 1772ko maiatza eta azaroa bitartean Italia, Austria-Alemania, Frantzia eta Britainia Handia bisitatu zituzten, beti ere Aginagaldek *Egan 2007*-en idatzitakoaren arabera. Bidaia horretan, besteak beste, badirudi Isaac Newton zientzialari famatuaren berri izan zutela, gero, zeharka eta nahiko modu bitxian bada ere, haren oihartzu-

[2] “*Grand tourra*”-ri buruzko informazio gehiagorako: Fussell, Paul *The Norton Book of Travel*, Norton, New York.

na ageri baita aztergai den lan honetan. Horretaz gain, ezagututako herrialdeei buruz aritzeko ere probestu zuen testu hau. Esan bezala, azaroan itzuli ziren Azkoitira, eta pentsa daiteke, itzuli eta Gabonak bitartean prestatu zuela Joakin Altzibarrek lantxo hau, denbora oso laburrean beraz. Egin zuten bidaiaren kronika ez bada ere, ikusitakoak azaltzeko aukera eman zion nolabait pieza honek. Aldi berean, bere familia eta Azkoitiko jende arruntaren artean zegoen aldea islatu nahi izan zuela esango genuke, ekonomikoki ahaltsuagoak izateaz gain, kultura eta jakinduria aldetik askoz jantziagoak zirela erakutsi nahi baita.

4.3. Argumentua

Lanean bertan zentratuta, hiru andrazkoren elkarrizketak osatzen du trama osoa. Hiru emakume hauek Altzibartarren etxeko sukaldean ageri dira. Elkarrizketa hau Altzibar anaiak Europan zehar bidaiatzen ari diren bitartean gertatzen da. Emakume hauei dagokienez, dakigula behintzat, bat Joakin eta Bizenteren ama bera da; Maria Antonia Acharan. Beste bi pertsonaiak Inazi Oleaga eta Antoni jostuna dira. Bata, txokolatea dastatzera Maria Antoniaren etxera hurbildu dena, eta bestea, jantzi batzuk josten ari dena, gero Maria Antoniak jantzi horiek bere semei Parisa bidali eta haiek han banatzeko. Pentsa daiteke bi pertsonaia hauek ere errealak direla, edota gutxienez pertsona jakin batzuetan oinarrituak. Nolanahi ere azkoitiarrak dira hirurak.

Euren artean daukaten hitz-aspertuak egunerokotasun kutsu nabarmena du, hots, ez dira gertakari jakin batez ari edo ez dago euren hizketan ohiz kanpoko aipamenik. Testuinguruak bultzatutako solasaldi arrunt bat da. Inazi iristearekin hasten da elkarrizketa eta honen galde-raren haritik joango da ondorengo guztia. Hain zuzen ere, Inazik bere semei buruz galdetzen dio Maria Antoniari, ea ba al duen haien berri-rik. Dakigunez, seme hauek Europan zehar bidaia bat egiten ari dira. Bidaia horren harira, hiru pertsonaiek Venezia, Alemania, Ingalaterra eta Parisi buruz dihardute. Elkarrizketan dagoen eten bakarra Maria Antoniaren seme Bizenteren eskutitza iristeak eragiten du. Hala ere, solasaldiak ildo beretik jarraitzen du: aurretik Venezia eta Alemaniari buruz hitz egiten ari baziren, eskutitzak Ingalaterra eta Paris aipatzeko aitzakia emango die. Hain zuzen ere, hiri eta herrialde hauei buruz Antoni jostunak eta Inazik dituzten sineskeria barregarriak izango dira komedia honen gailur nagusiak.

4.4. Pertsonaiak

Pertsonaietan oinarrituta, nabarmena da euren arteko mailen ezberdintasuna. Alde hori, hasteko, klase sozialean ikus daiteke. Etxearen nagusia da Maria Antonia; Antoni jostuna, berriz, harentzat ari da lanean; eta Inaziri buruz dakigunagatik, jendea etxean hartzen duen etxeoandre bat dugu. Bestalde, Maria Antoniak bi seme ditu European zehar bidaiatzen, hauen ahalmen ekonomikoaren erakusgarri. Dena den, aipatzen da Inaziren semea ere kanpoan dabilela (Bizente ez bezala, etxera eskutitz bat bidaltzeko alferrez). Deigarria da, honetaz gain, Inazik “D^aM^a Antonia Andrea” erabiltzea Maria Antoniaz aritzeko, “Doña” tratamenduaz deitzea alegia.

Hizkera aldetik ere garbi gelditzen da zein dagoen zeinen gainetik; Inazi eta Antoni jostuna berorika zuzentzen baitzaizkio Maria Antoniarri, honek zukako erregistroan egiten dien bitartean. Horretaz gain, agerikoa da etxeko nagusiaren esanari dioten errespetua, nola erantzuten duten eskariren bat daukanean; esaterako Inazi Parisi buruz hitz egiten hastera doanean, Antonik eta Maria Antoniak biek eskatzen diote dakiena esaten hasteko, baina, Inazik azken honen eskaria soilik hartzen du aintzat, eta nola gainera: “bada Berorri. gusto ematiagatic: Abijacera nua” (Inazi: 6. or.)³.

Maila ezberdina dute jakinduriari dagokionean ere. Sineskeria barregarri guztiak Antoni jostunarenak eta Inazirenak dira, Maria Antonia aldiz, hauen zuzentzaile eta hizketa gai duten ororen jakitun da. Jakituria hori zenbaitetan nahiko modu sinesgaitzean erakusten da; adibidez, Parisen egunean zenbat jaten den datu zehatzez aipatzen duenean. Uneoro dago Antoni eta Inazi barregarri uzteko ahalegina, azken aldera eurek onartzeraino: “obeizango da, nere disparatiaquin gehiago berorri Cansatu baño leen. echera jubatia” (Inazi: 9v. or.), “Antoni suc. eta nic. estaquigu ezer. munduban ce pasacen dan; eta ala obedegu D^a. M^a Antonia Andria. gure. disparatiaquin. berorri lehenago Cansatu. bano leen. bacoiza bere echera. dijuen” (Inazi: 10v. or.). Aurretik ere, Maria Antoniak hitza hartu behar duen bakoitzean, haren jakinduria goersten saiatzen dira: “gauza aubec guc baño obeto. jaquingo ditu. D^a M^a Antonia Andriac” (Inazi: 2v. or.). Antoni jostunak Inazi bera ere andre jakituntzat dauka, etxean jasotzen dituen kanpokoek bitak medio, baina honela

[3] Obratik hartutako aipamen guztiak Jose Luis Ugartek eta Iñaki Aldekoak *Egan 2007*-n emandako transkripzioetik kopiatu dira.

zuzentzen zaio hala ere Maria Antoniari hitza emateko orduan: “Bai Ygnaci. Orrenbesterequin satisfacioa euqui lei andra guichi arquiteco dira Azcoitian. suc aña daquieta eta ala Ynvidia andia dizut: bana. Ora-indican ere badeizot. eze. ehecho andriac. suc bano obeto jaquingo dua-la” (Antoni jostuna: 3. or.). Maria Antoniak berak ere ondo onartzen du jakitun rol hori eta gisa honetara hitz egiten du berak ere: “Ai. Ygnaci punto. onetan subec aña obligacio daucat Jaquiteco. baña. nire. ustes. esta. Venezia erorten subec uste desuten lecuban” (Maria Antonia: 2v. or.).

Elkarrizketaren protagonista nagusi diren hiru emakume hauetaz gain, bada atentzioa deitzen duen beste pertsonaia bat ere, obran parte hartzen ez badu ere behin baino gehiagotan aipatzen dena. Pertsonaia hori Inaziren senarra da, eta gazteleraz ematen den obraren aurkezpe-nean “Gran Neutoni” izenez aipatzen bada ere, obran zehar “Fraisko” gisa deituko dute. Iñaki Aldekoak “Antzerkiaren transkripzioa eta hainbat ohar” *Egan* 2007-ko bere atalean aipatzen duenez, “Gran Neutoni” izenak Newton zientzialariaren izena iradokitzen du. Egia da izen horrek ezinbestean ondorio horretara eramaten gaituela, baina horretaz gain, lanean aipatzen denez honako tituluak ditu Fraiskok: “D. Francisco de Lete, Comendador de la Orden de Vaco, Su Gentilhombrecon Ejercicio (...) de la Academia Real de las Ciencias de Paris y de la de Berlin, de la Sociedad Real de Londres, del instituto de Bolonia, Maestro de Física, de Historia Natural, de Botánica, Medicina, Anatomía y Matemáticas, Gran Astrónomo del Rey y su Geografo Mayor” (Inazi: 3v. or.). Titulu hauek ere Isaac Newtonengana garamatzate ezinbestean, zientzialari famatuak landutako zientzia esparruak aipatzen baitira testuan. Zertxobait aurre-rago ere Frantziako Erregearen Geografo nagusia dela esaten da. Ez bairik gabe, bitxia da pertsonaia honek obran jokatzeko duen papera. Nahiko argi dago antzerki honen autoreak Europan zehar egindako bidaiak Newtonen ideiak ezagutzeko aukera eman ziola, eta badirudi, nolabait bere obran sartu nahi izan zuela. Baina, antzerki honetan egiten zaion aipamena nahiko surrealista dela esango genuke; ez da erraza ulertzen zientzialariaren itzala Altzibarrek bere obran agertu nahi izateaz aparte zein helburu izan zezakeen gizon honen agerpenak.

Ez dago esan beharrik pertsonaiak erabat lauak direla, hau da, ez dute inolako nortasun aldaketarik jasaten. Bakoitza bere egoeran mantentzen da hasieratik amaieraraino. Ez da harritzekoa egia esan, ba-

koitzak bere izaera mantentzeak ahalbidetzen baitu obran zehar umore komikoa mantentzea.

4.5. Alderdi teknikoak

Alderdi teknikoei erreparatuz gero, antzerki pieza batek izan ohi dituen ezaugarri gehienak falta ditu *Grand tourra*-k. Nabarmenena akotaziorik eza da. Taularatu behar den lan batean behar-beharrezkoak diren oharrak falta dira. Ikus daitekeenez, autorea esan beharrekoan zentratu zen batik bat, gainerako alderdi formalak alde batera utzita. Horretaz gain, ekitaldi bakar batean garatzen da obra guztia, ez dago ez akto banaketarik, ez eta inolako etenik ere; obrak duen luzeragatik, badirudi ez zegoela horretarako beharrik. Izan ere, oso denbora laburra da kontakizunean igarotzen dena; egun arrunt bateko goiz bateko kontua dela dirudi. Lekuari dagokionez, Altzibartarren etxeko sukaldean gertatzen da eszena guztia, eta badirudi, sukalde hartan bertan antzeztu zutela.

Estilo ezaugarriei erreparatuta, ez dirudi baliabide literarioen erabilera gehiegi kezkatu zenik. Nahiko ondo zaintzen du, ordea, pertsonaien hizkera. Lehen aipatutako berorikako eta zukako erregistroek eragindako bereizketaz gain, nabarmena da Antoni jostunak eta Inazik hizkera herrikoia darabilte; askotan presaka bezala hitz egiten dute, esan beharrekoa askorik pentsatuko ez balute moduan. Maria Antonia, berriz, patxada handiagoz aritzen da, bere jakintsu paperari hobeto egokitzen zaion hizkeran, hizketa gaia ongi menperatzen duenaren eitean. Ondoko pasarte honetan adibidez, zerbait esaterako gauzak ongi jakin behar direla aipatzen du; badirudi inplizituki esaten duela hain zuzen Antonik eta Inazik justu kontrakoa egiten dutela: “Antoni naiene-co (nahi ez nuke) iñoz. sartu izeguitera libertade andijarequin chit ondo aizen ezturen gauzetan. bestela daroa disparatia disparatiaren gañian” (Maria Antonia: 3. or.).

4.6. Helburua

Azterketa literarioarekin amaitzeko, Joakin Altzibarrek lantxo hau idazterakoan izan zezakeen helburua aipa daiteke. Izan ere, ez dirudi inongo helburu moralik edota hezitzaierik izan zuenik, garaiko genero dramatikoan ohikoa zen bezala. Egia daklase sozial altuko emakume bat maila xumeagoko beste biri irakaspen batzuk ematen ari zaiela uneoro. Baina, ez dugu uste intentzioa publikoari irakaspen geografiko bat ema-

tea izan zitekeenik, Antoni jostunaren eta Inaziren bizkar barre egitea baizik.

Ezin da ahaztu, Altzibartarren etxeko sukaldea aipatzen dela eszenatoki gisa; beraz, pentsa daiteke ikuslegoa oso kopuru murrizta zela eta nahiko giro intimoan antzestu zela solasaldi hau. Gainera, kontuan hartu behar da Gabonetan aurkeztu zela. Ondorioz, ez litzateke harritzekoa oso jende gertukoa soilik izatea publiko. Honek guztiak gure ustez ondoko hau adierazten du: helburua, azken finean, Joakin eta Bizente Altzibarren bidaia oinarri hartuta, gertukoenak entretenitzean zetzala, bi pertsonaia komikoren kontura une umoretsu bat igaroz eta, nolabait, euren klase sozialetik herri xeheagoari barre eginez. Hala ere, esan behar dugu hau hipotesi bat besterik ez dela, ez baitago zehazki jakiterik zer publikorekin eta zer girotan aurkeztu zen *Grand tourra*.

5.- ITURRIAK ETA ERLAZIOAK

Literaturan sortzen den lan orok izan ohi ditu bere iturriak. Auto-reak irakurritako obrek, neurri handiagoan edo txikiagoan, idatzitako lanean eragiten dute. Finean, irakurritakoaren seme-alaba dira idazleak eta, nahi edo ez nahi, irakurritakotik hartuko dituzte euren lanetarako ereduak. Horretaz gain, jakina da literaturan uneoro ideia, forma eta teknikak etengabe joan-etorrian dabiltzala eta idazle bakoitza garaiko korrontearen edo moden seme-alaba ere badela. Horregatik, literatura lan bat aztertzean beharrezkoa deritzogu iturriak eta garai hartan eragin ziezaioketen modak aztertzeari. Idatzitakoa idazterakoan zerk eragin zion manera horretan idaztea edo, gauza bera dena, zein beste lanekin izan zuen erlazioa. Beraz, ez dugu uste soberan dagoenik Altzibarrek *Grand tourra* idatzi zuen garaian eta inguruan literaturaren eta zehazki antzerkiaren esparruan nagusi ziren korronteak aipatzea. Ea horrela lan honen iturriak edo ereduak finkatzerik lor daitekeen.

5.1. Testuinguru orokorra

Jakina da XVIII. mendeko kultura mugimendu nagusia Ilustrazioa izan zela. European zehar hedatu zen mugimendu hau eta, kulturaz gain, zientzian eta filosofian ere garatu zen. Ilustrazioaren mende honi “Argien mendea” ere esan izan zaio, gizateria arrazoiaren bidez ilunpetik “argitu” egin zela esaten baitzen. Literaturan ere izan zuen eraginik mugimendu honek, hain zuzen, Neoklasizismoa sortu zen Ilustrazioaren

baitan. Korronte hau artearekin lotu izan bada ere, literaturan ere eragin nabarmena izan zuen. Gainera, literaturaren barruan genero dramatikoak izan zen gehien landu zen generoetako bat. Neoklasizismoaren sorrerak bultzada handia eman zion antzerkiari kontinente zaharrea, zehazki, korronte honetako antzezlanek derrigorrezko hiru unitateak bete behar zituzten: espazioa, denbora eta ekintzarena. Horretaz gain, helburu didaktiko moral batekin idatzia izatea ere beharrezkoa zen. Komeditan, batik bat, herritarren bizioei eta ohitura txarrei barre egitea bilatzen zen, ohitura txar horiek identifikatu eta herria hezteko helburuarekin. Helburu hori gauzatzeko literatur genero egokiena genero dramatikoak izatea jo ohi da antzerkigintzak Ilustrazioaren garaian izan zuen gorakadaren arrazoi nagusitzat.⁴

“Argien mendean” genero dramatikoak Europan gorakada nabarmena izan bazuen ere, ezin esan gauza bera gertatu zenik Euskal Herrian. Honela arrazoitzen du Patxi Salaberrik bere *Iraupena eta lekukotasuna: euskal literatura idatzia 1900 arte* liburuan Euskal Literaturan antzerkiak gorakadarik ez izana garai horretan:

Eskasiaren arrazoiak, dena den, idazleen subjektibotasun eta zaltetan hutsetatik at leudeke eta, nonbait, *ikuskitzaren* ohiko ikuspuntu mundutarrean eta fenomeno dramatikoaren jite hiritarrean leutzake nagusiki, ahaztu gabe, jakina, gortearen eta nobleziaren esparruetara uztartua izan dela tradizionalki. Orpustanek oroitarazi bezala (1996, 129), nekazaritza munduaren nagusitasuna, euskaldun hiri handirik eza, antzerki-gune erraldoi ziren hiriburuetatik urruntasun geografikoa eta, azkenik, antzerkia inmoraltzat ohi zuten elizgizonen aitzindaritza soziala eta kulturala bera ez ziren adierazpide honen garapenerako baldintzarik egokienak suertatu. Erantsi beharko litzateke euskararen menpegoera “tradizionalak” eta nolabaiteko hizkuntz erabilera kultura eta urbanoa ziurta zezakeen noblezia-burgesia euskaltzalearen faltak berak ere ez zutela gehiegi lagundu antzerki-mundua egituratzen (2002:128).

[4] Ilustrazioari eta Neoklasizismoari buruzko informazio gehiagorako: Iáñez, Eduardo 1990 *La literatura en el siglo XVIII : Ilustración, Neoclasicismo y Prerromanticismo*, Tesys, Barcelona.

5.2. Euskal Herrian idatzitako obrak

Hala ere, izan zen euskal antzerkirik XVIII. mende hartan. Aurrena, Pedro Ignazio Barrutia (1682-1759) aramaioarrari egotzi izan zaion *Acto para la Nochebuena* (*Gabonetako ikuskizuna*) pieza, Iñaki Aldekoak *Euskal Literaturaren Historia* liburuan dioanaren arabera 1750 inguruan idatzia izan bide zena. Barrutia, Arrasateko notarioa izan zen eta bere izenean dago obra hau, nahiz eta behin baino gehiagotan jarri den zalantzan bere egiletasuna. Hona hemen Salaberrik azalduta *Gabonetako ikuskizuna*-ren egiletasunaren inguruko auziaren azalpentxo labur bat:

(...) zalantzan jarri izan da luzaroan notarioa bera izan ote zen egilea ala besteren hitzak jaso ote zituen, libretoa idatziz eman ahal izateko. Arestiren ustez, beste batena zen obra. Eta egia da, notario baten burutik sortua izateko, zabarregia lirudikeela lanak, zaindu gabea (2002:129).

Antzezlan honetan, Jesukristoren jaiotza eta XVIII. mendeko Arrasateko bizimodua nahasten dira eta “Gracioso” pertsonaiaren ibilera okerrekin alaituko dute batez ere, lehendabiziko euskal antzerki modernotzat jotzen den lantxo hau. Dena den, pieza honek ez du zerikusirik garaiko Europan garatzen ari zen antzerki Neoklasikoarekin. Honela sailkatzen du Aldekoak: “Barrutiaren obra barroko berantiarreko Eguberriko ekitaldiaren tradizioaren baitan dago (...) *Acto para la Nochebuena*-k ez du inolako loturarik XVIII. mendeko europar teatroak bere buruari ezarrita zizkion antzerki-konbentzioekin” (2008:90-91). Ez da erraza asmatzen antzezlan hau garaiko euskal gizartean sortutako antzerki bakarra den edo izan ziren gugana iritsi ez diren pieza gehiago ere. Salaberrik ere zalantza hori bera plazaratu du:

Lasgabasterrek zioen bezala, nekez esplika bailiteke *Ikuskizuna* oinarrizko antzerki-ingurune eta gizarte-aztura bat gabe. Ondoko galderak, dena den, ez dira erantzun-errazak: bi mendetan euskal erroak hartuz joan zen tradizio bateko ale bakarren aurrean geundeko? testuetan oinarritu bainoago, testurik gabeko edo testu gutxiko antzezpenak ote ziren? trinko kode-tuak eta oinarrizko elementuak beti agertzen zituak ote? (2002:129).

Bada beste antzezlan bat ere Barrutiarenarengandik denbora gutxira taularatutakoa. Lehenago ere aipatua den Xabier Muniberen *El borra-*

cho burlado-z ari gara. Zehazki 1764-an antzeztu bide zen lehen aldiz Bergaran. Mozkor bati irakatsi zentzagarri bat nola ematen zaion kontatzen da bertan. *Gabonetako ikuskizuna* ez bezala, aipagai dudan pieza hau Neoklasizismora lerraturako pieza bat da. Hau ez da harritzekoa, Munibe bera euskal ilustraturik garrantzitsuentzat jo izan dela kontuan hartuta. Hona Salaberriren azalpena *El borracho burlado*-z:

Gaztelaniaz idatzi zituen beste lanetan bezala, prezeptiba neoklasiko garbia du Munibek ikusmiran, hau da, arrazoiarekin bat egiten duen estetika arauemaile zurruna, gehiegikeria barrokoei aurre egiten diena, eta betiere naturaren imitazioa eta egiantzekotasuna irizpide dituena. Halere, eta nonbait garaiko kritiken beldur, zehazkiro zuritzen du ohiko unitateei eskainitako trataera, *arauek* agintzen zutena baino biziki nasaiagoa (2002:132).

Dena den, bada Muniberen lana Euskal Literaturaren lehen antzerki Neoklasikoa izatea zailtzen duen zehaztasun bat. Hain zuzen ere, obra hau Euskal Literaturatzat jotzeko zailtasuna. Izan ere, bertso batzuk izan ezik beste guztia gaztelaniaz idatzita dago. Jon Juaristik *Literatura Vasca* liburuan dioen bezala: “pieza hori areago da diglosikoa elebiduna baino, euskara zati kantatuentzat bakarrik erabiltzen da eta gizarte-maila apalagoko pertsonaietan bakarrik”(1987:63). Salaberrri ere jabetzen da horretaz eta honela epaitzen du auzia: “gogoan hartu ohi da Xabier Muniberen *El borracho burlado* obratxoa, nahiz eta nekez txerta daitekeen Euskal Literaturaren esparruan”(2002:130). Munibek berak ematen digu gaztelaniaz idazteko bere hautuaren arrazoia “Advertencia del autor” atalean:

La primera se dirige a aquellos que notarán la mezcla que se hace del vascuence y castellano, pareciéndoles más regular el que todo fuese en uno de los dos idiomas. Digo, pues, que mi primera idea fue de que toda esta ópera fuese en vascuence: pero luego me faltó la dificultad del dialecto de que me había de servir en ella. Si me valía del de Azcoytia, hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el vascuence o dialecto de Goi-erri; y, si quería usar del dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc., exponía a los actores a hacerse ridículos; pues sería difícil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razón, pues, me hube de contentar con

reservar el vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuese en castellano.

5.3. *Grand tourra*-ren iturri bila

Orotara, bi antzerki hauek dira Altzibarren *Grand tourra*-ren aurretik euskal munduan idatziak, baina, hirurak ere mende laurden baten bueltan idatziak izanagatik, bada hiru mundu ezberdinetakoak direla pentsatzeko nahikoa arrazoi. Ezberdintasunik agerikoena forman legoke; aurreko biak bertsoz idatziak baitaude eta, Altzibarren testua berriz, prosaz. Ez da hori, dena den, ezberdintasun bakarra; luzera, alderdi teknikoak, hizkera, helburua...*Grand tourra* beste bi lanetatik oso bereiz sailkatzeko arrazoiak dira. Azken honen laburtasunak, alderdi teknikoan gabeziak, hizkera zaindu gabeak eta entretenimendua helburu bakarra izateak argi uzten dutena da ez Barrutiaren eta ez Muniberen obrarekin ez daukala zerikusirik. Nahiz eta “Peñafloridako Kondea” eta Joakin Altzibar garaikide eta herrikide izan.

Bere ingurukoekin zerikusirik ez izateak pieza honek bestelako iturriak izan ditzakeela pentsatzera bideratzen dute bat. Eta iturria zein eta nongoa izan zen jakitea ia ezinezkoa izan baliteke ere, susma daiteke Europan zehar egindako bidaian hartu zituela Altzibarrek lana egiteko ideia eta adibideak. Hori pentsatzeko arrazoi bat baino gehiago aurki daitezke. Hasteko, testuaren argumentua bera bidaia honi buruzko elkarrietzeta bat izatea. Bestalde, lehenago aipatu bezala, bidaia mota hauen helburua kulturalki janztearekin zegoen lotuta; horregatik, pentsatzekoa da hainbat antzezlan ikusteko aukera izango zutela bidaiariak. Gainera, lan honek baditu garai hartan Europan nagusi zen Neoklasizismoaren zertzelada batzuk: denboraren eta lekuaren unitateak xuxen betetzen ditu behintzat. Hala ere, nekez sailka daiteke obratxo hau Neoklasikotzat, ez baita auzi baten aurkezpen, garapen eta amaierarik antzetzten, eta ez baitu herri xehea bizio eta ohitura kaskarretatik atera eta hezteko intentziorik erakusten. Guztiarekin, ezin da ahaztu halaber, bidaiatik itzuli eta hilabeteko kontua izan zela pieza honen taularatzea.

Ondorioz, aipatu berri ditugun argumentuak eta, batez ere, Barrutiaren eta Muniberen lanekin duen loturarik eza kontuan hartuta, esan go genuke zentzuzkoena dela pentsatzea aztergai den lan honek Europan zehar egindako bidaian dituela bere iturriak edo, gutxienez, bidaia honetan ikusitakoei esker hartu zituela autoreak lan hau antzerkiaren barruan sailkatzera garamatzaten ereduak. Dena den, eredu hauek piezaren forman eragin zutela iruditzen zaigu, izan ere, gaiari dagokionez,

ezin jakin kanpotik eredurik hartu zuenik, bere etxean bertan ohikoa izan zitekeen eszena bat irudikatzen baitu.

6.- ONDORIOAK

Amaitzeko, azterketa honen ondorioak plazaratuko ditugu. Horretarako, sarreran aipatutako zalantzei erantzuten ahaleginduko gara. Bertan aipatu dudanez, obra hau lehendabizikoz irakurtzean ustez aurkitutako formalismo falta hori zenbaterainokoa zen jakin asmoz aztertu ditugu obraren ezaugarriak. Hau da, zenbateraino har dezakegun lan serioztat genero dramatikoaren euskarazko lehenengoetariko obra hau.

Emitza hasierako intuizio haren isla dela esango genuke. Hots, helburu xumeko obra bat izaki, alderdi formalak zaintzeaz ez zela askorik arduratu Joakin Altzibar. Horren froga direla iruditzen zaigu, has-teko, obran darabiltzan hizkera eta grafia. Zehatzago izateko, testu osoan zehar sumatzen den koherentzia falta. Esan nahi baita, ez zela gai izan irizpide edo arau jakin batzuk bere buruari ezartzeko edota ezarritako irizpideak betetzeko. Horren isla nabarmena dira, esaterako hia-toen adibideak; bi bokalen arteko batuketek, gehienetan, emitza bat baino gehiago ematea (baita hitz berean ere) axolarik ezarekin arrazoitu daiteke. Edota pertsona bakoitzarengan hain markatua den Nor-Nork **edun* aditz laguntzailearen lehen pertsonan hiru aldaera ezberdin agertzea, koherentziarik ezaren adibide behintzat bada. Irizpiderik eza are gehiago nabaritzen dela iruditzen zaigu grafiaren atalean. Grafema bakoitzarekin jokabide bat hartu eta hari jarraitzea logikoena bada ere, Altzibarrek ez du arazorik hots bat bi edo hiru modu ezberdinetan adierazteko. Hitz bat idazterakoan, ziurrenik, unean uneko burutazioei men egingo zien, aurretik nola idatzi zuen askorik kezkatu gabe.

Alderdi hauetan koherentzia falta da, nolabait, idazlearen ardurarik eza frogatzen duena, baina, lexikoak ere atentzioa deitzen duela esango genuke. Izan ere, gatzelaniatik hartutako mailegu kopurua oso handia da. Honek, era batera edo bestera, euskara txukun edo jaso bat egiten ez zela ahalegindu erakusten du. Baliteke bere ohiko hizkera horrelakoa izatea, baina, jendaurrerako hizkera garbiago bat erabiltzea zentzuzkoagoa litzateke. Bestalde, sinesten gaitzagoa bada ere, ezin da ahaztu elkarrizketan parte hartzen dutenak hiru azkoitiar peto direla, eta izan litekeela, haien hizkera herrikoia islatzeko ahalegina hainbeste maileguren erabileraren arrazoia.

Kontuak kontu, Altzibarren laneko hizkeraren formaltasun eza agerian errazen uzten duena, geografikoki eta kronologikoki hain gertukoa zuen Muniberen lanekin alderatzea da. *Gabon Sariak*-ek eta *El borracho burlado*-k ez dute ezaugarrien halako aldakortasunik erakusten, *Grand tourra* baino askoz zurrunagoak eta zuzenagoak dira hizkera eta grafia arauetara dagokienez. Egia da, “Peñafloridako Kondeak” Larramendirekin izan zuen loturak (*Gabon Sariak* laneko lexikoan islatzen da argien lotura hori), hizkuntzaren alderdi formalak gehiago zaintzera behartu zezakeela. Izan ere, Loiolako jesuitaren kezka nagusienetako bat euskara ahalik eta garbien mantentzea zen, eta pentsa daiteke, Muniberi ere kezka hori nolabait itsatsi ziola, gerora euskara erabiltzeaz asko arduratu ez bazen ere. Oro har, bi azkoitiar hauen alderaketan Altzibarren hizkera herrikoiagoa dela nabari daiteke (garai hartako Azkoitiko hizkera zehazki nolakoa zen jakin ez arren), hiatuetan bokalak aldatzea (<e>+<a>=<ia>) edota <j> eta kontsonanteak bokal artean sartzea izan daitezke adibide batzuk. Txistukarrietan Altzibarrek daukan nahasmena edo aditzak begiratu batera Munibek jasoagoak erabiltzea (Altzibarrek *dijue* eta “Munibek *diote* adibidez), berriz, gauza bera adierazten duten adibide gehiago dira. Horrez gain, Altzibarrek hizkeraren eta grafiaren alderdi askotan erakusten duen aldakortasunik Muniberena baino hizkera nahasiago baten berri ematen digu. Dena den, badira konpartitzen dituzten adibideak ere; izen-morfologian, aditz izenean edo berdin erabiltzen dituzten aditz askotan esaterako.

Azterketa literarioari dagokionez, esango genuke obraren helburuak berak ematen dituela gainontzeko ezaugarriak ulertzeko pista gehien. Izan ere, testuaren hasieran aipatzen da Altzibartarren sukaldetan Gabonetan antzezteko idatzi zela obra, eta lehen ere esan dudana bezala, leku eta garai honek publikoa oso gertuko jendea izango zela pentsarazten dute. Horrez gain, testuan, obra antzeztu zen lekua eta eguna adierazten direnez, susma daiteke egun jakin horretarako soilik prestatua izan zela. Honek guztiak uste dugu arrazoitzen duela alderdi teknikoek edo literatura auziez Altzibarrek erakusten duen axolarik eza. Izan ere, ez zaigu iruditzen bere asmoa lan literario bat egitea zenik, gertukoena entretenitzeko moduko testu bat atontzea baizik. Arestian aipatu moduan, baliteke antzerkia egiteko ideia Europako bidaian hartu izana, eta ezin jakin European ikusi ahal izan z(it)uen antzerkia(k) gisa honetakoa(k) z(ir)en ala publiko zabalago bati eskainitako lan serioagoa(k) z(ir)en, Neoklasizismoan genero dramatikoak bete ohi zuen hel-

buru moralarekin, derrigorrezko hiru unitateekin... Garbi dakiguna da, Altzibarren helburua gertukoenei barre algara batzuk sortzea soilik bazen, ez zeukala zertan kezkatu bere lanak helburu didaktiko moral bat izan zezan edota antzerkiaren hiru unitateak zuzen bete zitezten.

Azken finean, beraz, helburu xumeko lan bat izateak, nola ezaugarri linguistikoak hala literarioak diren bezalakoak izatea ulertarazten digu. Ezin, hortaz, lan hau goi-mailako literaturatzat edo antzerki lan seriotzat hartu, Joakin Altzibarrek ez baitzuen egitasmo hori eduki. Behin hau esanda, ezin ahaztu euskarazko antzezlanen lekukotasunetan zaharrenetarikoa dela testu hau. Aurretik euskaraz gisa honetako ia ezer ez egoteak Altzibarren ahaleginari gainbalio bat ematen dio, eta sarre-ran esan dudan bezala, balio historiko handiko lana izatea eragiten du. Beraz, euskal antzerkigintzaren historia egiterakoan, ezinbestean aipatu beharreko obra da *Grand tourra*.

Bibliografia

- Aginagalde, Borja. 2007. "Joaquín de Alcibar-Jauregui eta Acharan (1746-1810) eta *Grand tourra* (1772)". *Egan* 60, 35-68.
- Aldekoa, Iñaki. 2008 [2004]. *Euskal literaturaren historia* (2008ko edizioa Jon Muñozen euskararako itzulpena da). Erein, Donostia.
- Aldekoa, Iñaki (Jose Luis Ugarterekin). 2007. "[Joakin Altzibarren] Antzerkiaren transkripzioa eta hainbat ohar". *Egan* 60, 69-91.
- Fussell, Paul. 1987. *The Norton Book of Travel*. Norton, New York.
- Iáñez, Eduardo. 1990. *La literatura en el siglo XVIII: Ilustración, Neoclasicismo y Prerromanticismo*. Tesys, Bartzelona.
- Juaristi, Jon. 1987. *Literatura Vasca*. Taurus, Madril.
- Lasagabaster, Jesus Maria. 1996. "El Conde de Peñaflorida, ¿Unsoñador para un pueblo?". In Aulestia, Gorka (ed.). *Los escritores: Hitos de la literatura clásica euskérica*, 235-259. Sancho el Sabio, Gasteiz.
- Mendiguren, Xabier. 1987. "El borracho burladoko euskararen azterketa (1764)". *Anuario del Seminario Julio de Urquijo (ASJU)* 21-1, 135-162.
- Salaberri, Patxi. 2002 *Iraupena eta lekukotasuna : euskal literatura idatzia 1900 arte*. Elkar, Donostia.
- Ugarte, Jose Luis. 2007a. "Joaquin Altzibarren antzerkia: Hiztegia". *Egan* 60, 93-103.
- Ugarte, Jose Luis. 2007b. "Joaquin Altzibarren antzerkia: Grafia". *Egan* 60, 105-113.